



**Fantasiako eta Beldurrezko
Zinemaren Astea**
**Semana de Cine
Fantástico y de Terror**
**Horror and Fantasy
Film Festival**



LARROTXENE BIDEO



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN



donostia
kultura

OIHUA!

Fantasiako Zinema Sorkuntza – 2. Deialdia

DEIALDIAREN XEDEA

Azken urteotan, euskarazko zinemagintzak arrakasta handia lortu du, baita oihartzuna ere nazioartean. Eta, izan ere, fantasiaren generoak izan du horretan zerikusirik, loraldi eta eklosio garai bat ari baita bizitzen, non sortzaile berriak forma ematen ari diren oraingo eta biharko zinemari.

Testuinguru horretan sortu zen 2019an **Oihua!**, Donostia Kulturak, Udaleko Euskara Zerbitzuak eta San Sebastian-Gipuzkoa Film Commission-ek bultzatutako ekimena. Bere lehenengo edizioan Paul Urkijo zinemagilea izan zen mentorea; proiektu irabazlea, berriz, **Zerua hautsi zen gaua**, María Fontán donostiarrarena. Bigarren deialdi honetan **Maidor Oleaga** zinemagilea izango da mentorea.

Deialdiaren asmoa, berriro ere, euskarazko fantasiako gidoen sorkuntza berria saritzea da, eta horretarako ikus-entzunezkoaren arloko profesionalen zeharkako aholkularitza ezarri da hautatutako proiektuarentzat. Horren azken emaitza film labor bat ekoiztea eta zuzentzea izango da, hori guztia Larrotxene Bideo-ren tutoretzapean. Film laborra 2022ko Donostiako Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren 33. Astean estreinatuko da.

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Euskaraz idatzitako gidoi original bat aurkeztea; ez dira itzulpenak onartuko.

Deialdia 35 urtera arteko sortzaile berriei zuzendua da. Sortzaile berrizat ulertzen da modu komertzial batean banatutako fikziozko ikus-entzunezko obrarik idatzi, zuzendu edo egin ez duen pertsona oro.

Deialdia pertsona fisiko indibidualei soilik zuzentzen zaie. Ezin izango dira aurkeztu beren ideia batera garatu nahi duten kolektiboak.

Aukeratutako hautagaiak erabakiko du bere gidioa zuzendu nahi duen, bere interesaren eta prestasunaren arabera. Hala ez bada, antolatzaileek bermatuko dute gidoiaren zuzendaritza.

Film laburraren filmaketa osoa Gipuzkoako Lurralde Historikoan egin beharko da.



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Kultura, Lanbideak, Osasun
eta Kiri Departamentua



ETORRIZUNA
ORAIN



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Ekonomia Bultzatzeko Zinegotzigoa
Concejalía de Impulso Económico

donostiasustapena
fomentosansebastián

DONOSTIARI GABAPEN EKONOMIKOA
DESARROLLO ECONÓMICO DE SAN SEBASTIÁN
SAN SEBASTIÁN ECONOMIC DEVELOPMENT



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Euskara



**Fantasiako eta Beldurrezko
Zinemaren Astea**
**Semana de Cine
Fantástico y de Terror**
**Horror and Fantasy
Film Festival**



LARROTXENE BIDEO



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN



donostia
kultura

BEHARREZKO DOKUMENTAZIOA ETA ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA

Dokumentazio guztiak, idatziak eta grafikoak, posta elektronikoz bidali behar da helbide honetara: larrotxene_bideo@donostia.eus, gaian **Oihua! deialdia** idatzita. Eskatzaileak posta bat jasoko du dokumentazioa jaso izana konfirmatuz, inskripzioa zuzen egin dela ziurtatzeko. Betiere, eskaera, dokumentazio hau erantsita bidali beharko da:

- Gehienez 20 minutuko film laburraren gidioa (gehienez 20 folio, DIN A4 formatuan eta courier new 12 letra-tipoarekin), beldurraren, fantasiaren eta/edo zientzia fikzioaren generoen barruan. Ez da animaziozko proiekturik onartuko
- Eskatzailearen datu osatuak
- NAN fotokopia
- Curriculum vitae
- Motibazio gutuna (gehienez 3.000 karaktere)
- Estekak aurretik egindako ikus-entzunezko lanei, halakorik balego

Hautagaitzak aurkezteko epea **2021eko abenduaren 19an** amaituko da, 24:00etan. Deialdiari buruzko informazio gehiago jaso nahi izanez gero, hona hemen kontaktua: larrotxene_bideo@donostia.eus.

PROIEKTU IRABAZLEAREN HAUTAKETA

Hautaketa batzorde bat eratuko da eskaerak aztertu eta ebaluatzeko. Batzorde horretako kide izango dira zinemagile eta edizio honetako mentore **Maidor Oleaga** eta zenbait ordezkari, Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren Astekoa, Larrotxene Bideokoa, Udal Euskara Zerbitzuko eta San Sebastian-Gipuzkoa Film Commission-ekoa. Alderdi hauek baloratuko dira:

- Proposamenaren sormena eta kalitate artistikoa.
- Proposamenaren bideragarritasuna produkzioaren ikuspegitik.
- Euskararen erabilera egokia.

Jasotako gidioen artetik proposamen bakar bat hautatuko da. Proiektuaren koordinatzaileak aukera izango du ordezkari gisa beste gidoi bat erreserbatzeko, baldin eta hautatutakoek uko egingo balute edo ordeztu beharko balira. Partaidetza guztiak egiaztatutakoan, erreserbako gidoi horiek ere suntsituko dira.

Ebazpena telefonoz jakinaraziko zaio hautatutako pertsonari, **2022ko urtarrilaren 21a baino lehen**. Bestetik, data horretatik aurrera, web orri hauetan ere kontsultatu ahal izango da:



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Kultura, Lanbideak, Turismoa
eta Kiri Departamentua



ETORRIZUNA
ORAIN



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Ekonomia Bultzatzeko Zinegotzinoa
Concejalía de Impulso Económico

donostiasustapena
fomentosansebastián

DONOSTIARI GABARREN EKONOMIKOA
DESARROLLO ECONÓMICO DE SAN SEBASTIÁN
SAN SEBASTIÁN ECONOMIC DEVELOPMENT



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Euskara



**Fantasiako eta Beldurrezko
Zinemaren Astea**
**Semana de Cine
Fantástico y de Terror**
**Horror and Fantasy
Film Festival**



LARROTXENE BIDEO



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN



donostia
kultura

www.donostiakultura.eus, www.sansebastianhorrorfestival.eus eta www.sansebastian-gipuzkoafilmcommission.eus/eu. Batzordearen erabakia apelaezina izango da.

SARIA

Proiektu hautatua honako ekarpen hauekin sarituko da antolatzaileen aldetik:

- Aholkularitza azken idazketaren prozesuan, gidoiko profesional baten eskutik
- Laguntza preproduzioaren eta filmaketaren antolamenduaren prozesuan zehar
- Aholkularitza, bai kreatiboa bai teknikoa, gidoigintzan eta zuzendaritzan **Maidere Oleaga** zinemagilearen aldetik
- Talde teknikoa, ikus-entzunezkoaren arloko ikasleek eta profesionalek osatua, film laburraren grabaziorako eta postproduziorako; taldea Larrotxene Bideo komunitatekoa izango da
- Beharrezko makineria eta materialak, Larrotxene Bideokoak, film laburra filmatu eta editatzeko
- Produzio gastuen poltsa, Larrotxene Bideok kudeatua
- Laguntza eta aholkularitza, San Sebastian-Gipuzkoa Film Commission-en aldetik, preproduzio eta produzio fasean: lankidetzak eskainiko dute lokalizazioak bilatzeko eta filmaketa egiteko behar izango diren baimenak lortzeko

Film laburraren kalitatea bermatzeko, aholkularitza taldeak gaitasuna izango du erabaki egokiak hartzeko, bai kreatiboak bai produziokoak, irabazleak onartu beharrekoak.

Emitzazko film laburra **2022ko Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren Aste**ko programazioan gehituko da. Pertsona hautatua filmaren kredituetan agertuko da, bertan bete duen zeregina akreditatuz. Ideia hautatuari 300 €-ko ordainsaria emango zaio, gidoia sinatu duen pertsonari egindako egile-eskubideen ordainketa kontzeptuan.

Film laburrak Larrotxene Bideoren produzio baten tratamendua izango du, zinemaldietan inskribatu eta sari posibleak jasotzeko ondorioetarako.

BESTE BATZUK

Proiektu honetan parte hartzeak bertan biltzen diren oinarriak onartzea dakar berekin. Saria onartzeak gidoia ustiatzeko eskubideak lagatzea dakar berekin, egileari dagozkion eskubide moralei kalterik egin gabe. Proiektuaren kredituetan behar bezala adieraziko da deialdi honetan hautatutako pertsonaren titulartasuna.



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Kultura, Lanbideak, Turismoa
eta Kiri Departamentua



ETORRIZUNA
ORAIN



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Ekonomia Bultzatzeko Zinegotzigoa
Concejalía de Impulso Económico

donostiasustapena
fomentosansebastián

DONOSTIARI GABEREN EKONOMIKAZA
DESARROLLO ECONÓMICO DE SAN SEBASTIÁN
SAN SEBASTIÁN ECONOMIC DEVELOPMENT



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Euskara



**Fantasiako eta Beldurrezko
Zinemaren Astea**
**Semana de Cine
Fantástico y de Terror**
**Horror and Fantasy
Film Festival**



LARROTXENE BIDEO



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN



donostia
kultura

Ebazpen honetan ezarritako betebeharrak bete ez badira, ez-betetzean erori dela ulertuko da, eta jaso dituen zenbatekoak itzuli beharko ditu onuradunak. Oinarri hauetan jaso ez den edozein gairen aurrean erabakitzeko gaitasuna Donostia Kultura EEPren esku egongo da.

Pertsona hautatuek errespetatu egin behar dute proiektua aurrera eraman ahal izateko sarbidea izango duten informazioaren izaera konfidentziala, baita izaera hori ematen zaion edo berez duen izaeragatik halakotzat hartu behar den informazioa ere.



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Kultura, Lanbideak, Gazterik
eta Kiri Departamentua



ETORKIZUNA
ORAIN



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Ekonomia Bultzatzeko Zinegotzigoa
Concejalía de Impulso Económico

donostiasustapena
fomentosansebastián

DONOSTIARI GABAPEN EKONOMIKOA
DESARROLLO ECONÓMICO DE SAN SEBASTIÁN
SAN SEBASTIÁN ECONOMIC DEVELOPMENT



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Euskara